

MIGRAZIOA MUNDUAN



Inge Larrañaga - Sara Ugartemendia - Irati Mendiluze - Nora Larrañaga

**Ainara Bordagaray Iparraguirre
Gizarte DBH3B**

AURKIBIDEA

- Helburua
- Rolak
- Sarrera
- Egutegia
- Gidoia
- Transkripzioa
- Elkarrizketaren bideoa
- Ipuina
- Mapa
- Ibilbideko argazkiak
- Eihara Irazusta
- Hausnarketa
- Jolasa
- Bitxikeriak



PROIEKTUAREN HELBURUAK

- Etorkinen, bizipenak ezagutzea.
- Migrazioaren errealitatea aztertzea.
- Enpatia eta elkartasuna lantzea.
- Elkarriketa burutzea eta transkribatzea.
- Ipuin bat sortu eta mapa atxikitzea.
- Proiektuaren aurkezpena burutzea.



BAKOITZAREN ROLAK

Idazkaria: Sara

- Lana, amaitzean dokumentua igotzea classroomera, irakaslearekin adostutako egunean.
- Lanaren, egitura, egokia izatea, justifikatua, lerrokatuta eta akats ortografikorik ez izatea.
- Lanaren irizpideak betetzea, baieztatzea.

Proiektuaren zuzendaria: Irati

- Kide guztiak parte hartu eta lanaren irizpideak betearaztea.
- Dena garaiz egoteaz arduratzen da.
- Kide bakoitzari bere lana egiteko eskatzen dio.
- Dokumentazio guztia prestatu eta irakasleari pasatzen dio.

IKT arduraduna: Nora

- Ikastetxeko mugikorren ardura izango du.
- Irudiak ordenagailura pasa eta mugikorreko memoria garbi uzteko ardura.
- IKT materiala irakasleari entregatzeko ardura.

Eginkizun komunak: Inge

- Denen artean egin behar duzue lana, eta osotasun bat bezala ulertu behar duzue; ez bakoitzak bere zatia, baizik eta taldearen kohesioa funtsezkoa da, Zuen artean komunikatu eta elkarren lana gainbegiratu.
- Elkarriketako galderak denen artean prestatu.
- Etorkinari egiten diozuen elkarriketan denek parte hartu behar duzue eta bideoan horrela ikusi behar dugu.
- Ipuina eta mapa denen artean egin, originaltasuna baloratuko da.
- Akats ortografikoak eta euskararen erabilera egokia gainbegiratu.

DAMBO DIABY DAMBA



Dambo 2008ko uztailaren 10ean jaio zen Oikian. Txikitatik Oikiako eskola txikian ikasi zuen. DBH egiteko Zumaiara etorri zen, gaur egun 16 urte ditu eta batxilergoa egiten ari da, ikasketetan oso ondo dabil.

Dambok bere egunerokotasunean hizkuntza mota desberdinak erabili behar ditu, guztira 5 hizkuntza erabiltzen ditu; euskara, gaztelania, ingelesa, frantsesa eta mandingera. Horrez gain, arabiera ikasten saiatzen ari da.

Bere aitak, Mamadou Diabyk, bidaia gogor baten ondoren, Samekoutatik Euskal Herrira iristea lortu zuen. Dambo bere jatorriaz oso harro dago eta bere aitari esker bere familiak etorkizun hobe izatea lortu dute.

Familian, Dambok hiru anai-arreba ditu: Diakhalaye, Fanta eta Sambou. Sambou ezaguna da, lehenengo, Goazen telesailean agertu zen eta orain “Miñan” antzezlaneko protagonista da. Sambou antzezten ikustean familia asko emozionatzen da, badakitelako aitak Ibrahima Balderen istorio oso antzekoa bizi izan duela.

Etorkizunari begira dituen helburuak ez ditu oso argi. Baina ziur gaude nahi duen guztia egitea lortuko duela, ikasketetan oso ondo dabilelako eta komunikatzeko gaitasun handiak dituelako. Damboren familiaren istorioak asko balio izan digu guri ikasteko eta dagoen egoerari buruz aztertu eta hausnartzeko, ez genuen espero hain hunkigarria, gogorra, eta luzea izango zenik, eta egin dugun lan honen bitartez, espero dugu zuei ere gauza bera transmititzea eta guri bezain beste gustatzea.

EGUTEGIA

Urtarrilak 29	Rolak banatu, elkarrizketa nori egingo diogun pentsatu eta dokumentua sortu.
Urtarrilak 31	Galderak prestatu, proiekturako ideiak hartu eta helburuak idatzi
Otsailak 5	Liburuaren azala egin, sarrera idazten hasi eta aurkibidea jarri.
Otsailak 9	Dambori elkarrizketa egin eta proiekturako behar genuen informazioa jaso.
Otsailak 10	Transkripzioa egin, bitxikeria batzuk gehitu eta Mamaouduren bidaia zehaztu.
Otsailak 12	Eiharari, Miñan antzerkiko pertsonaiari, elkarrizketa egin proiektuari originaltasuna emateko.
Otsailak 17	Liburua egiten jarraitu eta aurkezpena egiten hasi.
Otsailak 19	Liburua egiten eta aurkezpena egiten jarraitu.
Otsailak 21	Liburua bukatu eta azala egin. Aurkezpena aurreratu.
Martxoak 6	Aurkezpena bukatu, proiektua amaitu.

GIDOIA

MAMADOU DIABY:

Zergatik erabaki zuen zure aitag hona etortzea?
Nondik etorri zen?
Nolakoa izan zen bere bidaia?
Noiz eta nola iritsi zen Oikiara?
Ba al dakizu nola sentitu zen hona etorri zenean?
Zein zailtasun izan zituen egokitzeko prozesuan?
Zaila egin zitzaion zure aitari hemengo kulturara ohitzea?
Mantentzen al du bere kultura?
Bere familia etorri al zen berekin? Edo han geratu ziren?
Kultura edo hizkuntza aldetik zailtasunik izan al zituen?
Izan al zuen bitxikeriarik hemen?
Zein izan da beretzako desberdintasun handiena?

SAMBOU:

Zer sentitu zuen Miñan antzerki lana antzeztean eta gainera bere aitag horrelako zerbait bizi izan duela jakitean?
Zer ikasi du Miñan antzerkia antzeztean?
Nola animatu zen lan hori egitera?

DAMBO:

Etorkinak izateak zer esan nahi du zuretzat?
Zein gomendio emango zenieke etorkinei gure herrialdean integratzeko?
Zure aitaren azalean jarrita, egingo al zenuen bidaia hori zure familia aurrera ateratzeko?
Zer hizkuntza hitz egiten dituzu zuk?
Zure aitaren hizkuntzatik, zein 10 hitz dituzu gustukoen?
Zer egiten duzu eskolaz kanpo?

TRANSKRIPZIOA

Zergatik erabaki zuen zure aitag hona etortzea?

- Bere seme alaben etorkizun hobeago bat bilatzeko eta berak zuen bizi-kalitatea hobetzeagatik erabaki zuen hona etortzea.

Nondik etorri zen?

- Nire aita Samekouta izeneko herrixkan jaio eta hazi zen, eta bertatik hasi zuen bere bidaia.

Nolakoa izan zen bere bidaia?

- Bere bidaia oso gogorra eta luzea izan zen. 2 urte eta erdi iraun zuen eta momentu oso gordinak bizi izan zituen. Azkenean nire aita pateran etorri zen, bide horretan itsasoa zeharkatzeaz gain Saharako desertua ere zeharkatu zuen. Ondoren, Aljeriara joan zen eta hortik, Tangerrera. Bertan, mafiei diru kantitate dezente ordaindu zien. Gero, pateran zeharkatu zuen itsasoa, hildako pila bat egon ziren, baina berak bizirik iraun zuen. Tarifara iritsi ziren eta kartzela moduko batean atxilotu zituzten 40 egunez. Ondoren Roquetas de Mar-en negutegi batzuetan egin zuen lan eta dirua lortzeko hainbat herrialde eta lekuetatik ibili zen.

Noiz eta nola iritsi zen Oikiara?

- 1999an iritsi zen Oikiara. Lagun baten laneko eskaintzari esker eta bertan geratu zen bizitzen.

Ba al dakizu nola sentitu zen hona etorri zenean?

- Oso pozik sentitu zen iristerakoan, denbora asko itxaron eta gero, lortu zuen bere helburua. Lan on bat eta lo egiteko lekua aurkitu zituen.

Zein zailtasun izan zituen egokitzeko prozesuan?

- Hasieran oso gogorra izan zen, kalean bizitzen egon zen denbora batez. Nire aita zortedun pertsona izan zen eta Iruñean zegoela laguntza eskaini zioten. Horrek asko lagundu zion.

Zaila egin zitzaion zure aitari hemengo kulturara ohitzea?

- Noski egiten zaizula zaila, iritsi eta dena desberdina dela onartzea eta guztiz aldatzea oso zaila da.

Mantentzen al du bere kultura?

- Zaila da mantentzea, pixkanaka hemengo kulturara ohitzen joaten zara eta zure kultura partekatzen duten pertsona gutxi daudenez, ez duzu aukera haundirik izaten. Hala ere, etxean beti saiatzen da bere kultura erabiltzen.

Bere familia etorri al zen berekin? Edo han geratu ziren?

- Nire aitak bidaia osoa bakarrik egin zuen. Behin Iruñean, 1998an, nire ama eta ahizpa Euskal Herrira ekartzea lortu zuen. Eta orain dela gutxi nire bi osabak ere ekarri ditu.

Kultura edo hizkuntza aldetik zailtasunik izan al zituen?

- Kulturara esango nuke pixkanaka guztiok ohitzen garela eta nire aitak horrelaxe egin zuen. Zailtasun handiena hizkuntzan egoten da, gaztelera bai ikasi du, gehienbat beharragatik. Euskara, aldiz, oso hizkuntz polita, baina zaila da eta oraingoz ez du lortu ikastea.

Izan al zuen bitxikeriarik hemen?

- Bai, nire aitaren kasuan bai. Iruñean zegoela, lagun handi bat egin zuen, Felix. Felix Iñaki eta Nico Williamsen aita da eta berak eman zion Oikiako fabrika lan egiteko aukera. Urte haietan Williams anaiak oso gazteak ziren, baina nire aitak esaten du jada futboleko pilotarekin egoten zirela jolasean. Nire aitak ez zuen espero gaur egun direna izatera iritsiko zirenik.

Zein izan da beretzako desberdintasun handiena?

- Dударик gabe bizi kalitatea. Bere ustez Euskal Herriko bizi kalitatea oso ona da beste herrialde batzuekin alderatuta.

Zer sentitu zuen Sambouk Miñan antzerki lana antzeztean eta gainera bere aitak horrelako zerbait bizi izan duela jakitean?

- Ohore handia sentitu zuen. Gidoia ematerakoan emozio asko izan zituen, bere aitaren azalean jartzeko ari da erabiltzen aukera hau.

Zer ikasi du Miñan antzerkia antzeztean?

- Bere lehen antzezlana ari da izaten eta antzerki munduan gogor egin behar dela lan ikasten ari da. Arrakasta handia izaten ari da Miñan antzezlana eta horrek gogo asko pizten dizkio.

Nola animatu zen lan hori egitera?

- Protagonistaren papera eskaini ziotenean pentsatu gabe baietz esan zuen. Bere bidaia profesionalean oso baliagarria izango zela pentsatu zuen eta horrela izaten ari dela pentsatzen du.

Etorkinak izateak zer esan nahi du zuretzat?

- Askok pentsatuko dute pertsona ilegalak direla, lapurtzera datozela... Baina nik ez dut horrela ikusten, guztiek ez dituzte guk ditugun aukerak eta besterik gabe etorkizun baten bila datoz. Gu bezala pertsonak dira eta nire ahotik inoiz ez da aterako ilegalak direnik ezta lapurtzera datozenik ere.

Zein gomendio emango zenieke etorkinei gure herrialdean integratzeko?

- Lehenengo dagoen errealitateari buruz hitz egingo nion, eta zaila izango dela aipatuko nion. Baina dударик gabe bertako hizkuntza ikasteak asko laguntzen duenez, ikasteko gomendatuko nioke.

Zure aitaren azalean jarrita, egingo al zenuen bidaia hori zure familia aurrera ateratzeko?

- Oso galdera zaila da erantzuteko eta ez nago ziur prest nagoen nire aitak bizi izan duena bizitzeko, baina nik uste bai saiatuko nintzela.

Zer hizkuntza hitz egiten dituzu zuk?

- 5 hizkuntza hitz egiten ditut: euskara, gaztelera, ingelera, frantsesa eta mandingera. Orain arabiera ikastekotan nago.

Zure aitaren hizkuntzatik, zein 10 hitz dituzu gustukoen?

- Gustukoen 5 ditut: Mama, Tata, Luo, Saama eta Yamfa.

Zer egiten duzu eskolaz kanpo?


- Lehen esan dudan bezala, arabiera ikastera joaten naiz eta kirol munduan atletismo dut gustuko.

ELKARRIZKETAREN BIDEOA

Hemen uzten dizuegu gure elkarrizketaren esteka:

[ENTZUN!](#)

Elkarrizketa hau egitean asko ikasi dugu eta gure proiekturako oso erabilgarria izan da. Gu oso ondo sentitu gara Damboren hitzak entzuten eta interesgarria iruditu zaigu.



BIZI ALA IRAUN



BIZI ALA IRAUN

Dambo naiz, zazpi urte ditut eta Oikian jaio nintzen, herrian, lagunekin euskaraz hitz egiten dut, etxean, berriz, mandingeraz. Gaur, uztailak 10, nire urtebetetze eguna da eta ezin dut lorik egin.

- Aitaaa, Aitaaa...
- Zer gertatzen da, Dambo?
- Ezin dut lorik egin, ez dakit zer gertatzen zaidan!
- Badakit zer gertatzen den hemen, gaur ez dizudala ipuina kontatu ezta?

Bazen behin, Samekoutan, Mamadou izeneko gizon jakintsu bat. Bere haurtzaroa ez zen erreza izan eta lanean igaro zuen. Helduagoa zenean, 20 urterekin, argi zuen ez zela berak nahi zuen etorkizuna bere familiarentzat. Bere amarekin askotan hitz egiten zuen horretaz eta bere aitonak beti izan nahi zuela bidaia egin kontatzen zion. Mamadouk bazekien bidaia oso luzea eta gogorra izango zela, baina guzti horren gainetik itxaropen handia zuen eta beti zituen gogoan bere amak esandako hitzak: "bidaia egitea erabakitzen baduzu, ez ahaztu inoiz nongoa zaren."

Hori buruan edukita, 26 urterekin bidaiari aurre egin zion, familia guztia atzean utzi eta emozio askorekin bere bizitza onera edo okerrera aldatuko zuen erabakia hartu zuen.

Lehenengo egunak oso zailak izan ziren baina argi zuen bere ametsa, eta Saharako desertu zabaletik ibiltzen jarraitu zuen. Hurrengo egunetan gosea eta egarria pasatzea zer zen bizi izan zuen, ez zuen jateko ezer aurkitzen, haizeak gogor jotzen zion gorputz osoan eta ezin zuen lorik egin. Hildakoak ikusten zituen desertuan eta bere buruari behin eta berriro galdetzen zion ea iristeko gai izango ote zen; hala ere, momentu horretan aurrera egitea zen bere aukera bakarra. Galduta, guztiaren erdian eta bakarrik sentitu zen egun luze haietan, baina gutxien espero zuen momentuan, gau luzeetan hainbeste aldiz pentsatu eta imajinatutako momentua iritsi zen, Aljeriako lurrak zapaldu eta arnasa lasai hartzen hasi zen. Aljerian egunak errazagoak izan ziren, lo kalean egiten zuen eta jatekoa ere lortzen zuen. Goiz batean, lurrean etzanda eta gogorik gabe zegoenean, Abdullah izeneko mutil bat

gerturatu zitzaion, hark eman zion lana egiteko eta diru pixka bat lortzeko aukera. Hilabeteak igaro zituen lanean eta bitartean lagun asko egin zituen. Era berean, bizitza horretara ohitu zenerako, joateko ordua iritsi zitzaion. Berriz ere bizitza bat atzean utzita Tangerrerantz abiatu zen. Egindako lagun batzuek berarekin bidaiari aurrera egitea erabaki zuten, bidean zihoazela denek laguntzen zioten elkar. Goiz eguzkitsu batean, “guardia” izeneko pertsona talde batekin egin zuten topo eta haiek bi aldiz pentsatu gabe, tiroka hasi ziren. Zoritxarrez bere bi lagun hil ziren, berak burua jaitsi gabe, baina triste aurrera jarraitu zuen, Tangerrera iritsi arte. Algerian irabazitako diruarekin, hainbat mafiei ordaindu izan behar zien, pateran itsasoa zeharkatzeko. Beldur handia zuen gorputzaren barrualdean, eta bazekien hiltzeko aukera handiak izango zituela hurrengo egunetan. Baina bere buruan ez zegoen atzera itzultzeko aukerarik eta bere lagunekin lasaitasuna bilatuta, paterara igo zen. Gau luzeak izan ziren itsasoaren erdialdean, ez zeuden ziur norabide egokian joaten ari ziren edo okerrean, baina berak bere familian zituen kezka guztiak. Urtebete pasa zen bere herritik atera zenetik eta ordutik ez zuen harremana eduki bere familiakoekin.

- Aita, baina guk ere badaukagu familia Senegalen, ezta?
- Bai, Dambo.
- Guk harremana mantentzen dugu telefonoz, nire ametsa beraiek ezagutzea da.

Aitari buruan geratu zitzaion Dambok esandakoa eta bere ametsa egunen batean beteko zuela ziur gelditu zitzaion.

- Aita, segi liburuarekin, oso interesgarria izaten ari da.

Beno, Mamadouri itsasoan gertatutako oso zaila da azaltzea. Oso esperientzia gogorra izan zen, hildako asko egon ziren, Saharako beroa atzean utzi eta gau haietan hotza pasatzera iritsi zen. Gosea beti zegoen berarekin eta momentu batean gehiago ezin zuela pentsatu eta itsasoaren erdian etzanda geratu zen, izarrei begira. Hurrengo goizean Tarifako hondartzan esnatu zen, burura etorri zitzaion lehenengo gauza egin zuen: korrika. Helmugarik gabe korrika egiten hasi zen, azkar, ahal zuen azkarren. Baina ez zen denbora asko pasa bertako polizia harrapatu zuten arte. Tarifako kartzelan egon zen atxilotuta 40 egunez, egun haietan bere lagunekin hitz egiteko aukera izaten zuen, jatekoa egoten zen, lo egiteko ohea zuen... Horiek bertan bizitako momentu onak dira, izan ere, afrikarrenenganako tratu txarrak nagusi

ziren kartzelan. Jo, mehatxatu, zirikatu eta mila gauza gehiago jasan izan behar zituen.

40 egun eta gero bere bidaiak aurrera jarraitu zuen eta asko pentsatu gabe Roquetas de Mar-era jo zuen. Bertan paperik gabeko pertsona askok egiten dute lan negutegietan. Denbora luzez egon zen gogor lanean, gau ta egun gelditu gabe. Dirua lortzen hasi zen, eta bere etorkizuna argitzen zituzten irtenbideak ikusten hasi zen. Ez zen lan oso ona izan, baina ez zuen inoiz ahazten nongoa zen eta ez zegoen kexarik. Gau batean sentitu zuen bere etorkizuna ez zegoela negutegietan eta aurrerantz egiteko erabaki zaila hartu zuen berriz ere. Hau ere bidaia luzea izan zen, auto-stop eginez, oinez, eta nekatuta iritsi zen Iruñeara. Euskal Herrian igarotako lehenengo egunak ez ziren errazak izan, kalean lo egiten egon zen, baina Mamadou ohituta zegoen ordurako. Sentitzen zuen erabaki txarra hartu zuela Roquetas de Mar-etik alde egiterakoan eta bere buruarekin haserre zegoen. Egunak joan egunak etorri lurrean etzanda eta gogorik gabe jarraitzen zuen. Arratsalde batean, siesta botatzen ari zela Felix gerturatu zitzaion. Felix gizon txikitxo bat zen, hasieran ez zion kasurik egin eta bakean uzteko eskatu zion. Mesedez entzuteko erregutu zion, bere etorkizuna hobetzeko aukera oso on bat zuela ziurtatu zion. Elkarrekin hitz egiteko taberna bateko terrazara joan eta bertan hasi ziren hizketan. Felixek komentatu zion lan bat eskaini ziotela Oikian, Gipuzkoan, baina bere emazteak ez zuela gustuko tokia, auzo txiki-txiki bat delako.

- Oikia? Gu bizi gara Oikian-eta.
- Segi entzuten, bukaerara iristen ari da.

Lanari ezezkoa esan beharko ziola entzun zuenean Mamadouk, mesedez aukera hori emateko eskatu zion eta noski eskaini ziola lanpostu hura. Momentu horretan negar egiten hasi zen, bizitzak emandako oparirik politenetako bat izan zen. Lagun onak egin ziren, ezagutu eta hitz egin zuten momentutik.

Azkar-azkar bere gauzak hartu eta orain bai, inoiz hartuko zuen erabaki onena hartu zuen. Behin Oikian zegoela, etxetxo txiki bat eman zioten eta lanean hasi zen. Inoiz pentsatuko ez zuen bizitza arrunt bat zuen eta zoriontsu zegoen. Dirua aurreratzea lortu zuenean bere emaztea eta umea ekarri zituen Euskal Herrira, Oikiako etxetxo txiki hartan familia zoragarri bat sortzen hasi zen. Dambo, Fanta, Sambou eta

Diakhalaye umetxoak zoriontsu bizi ziren, horrela izan da gaur egun arte eta horrela jarraituko du.

- Aita, baina ez dut ezer ulertzen. Aipatutako pertsonak ni eta nire anaiak gara.
- Bai, halaxe da Dambo, entzun duzun istorioa niri gertatutako guztia da.

7 urte eta gero...

Dambo naiz, 14 urte ditut eta uztaiak 10, nire urtebetetze eguna da.

- Egun on, Dambo! Zorionak!
- Mila esker, Aita!
- Azkar, berandu goaz-eta.
- Berandu nora?
- Gogoratzen al zara orain dela 7 urte zin egin nizun bidaiaz?
- Bai, noski, aita! Nola ahaztuko dut hori?
- Gaur da eguna! Samekoutara egingo dugu bidaia eta nire jatorria eta zure familia ezagutuko dituzu.

Dambo naiz, eta oso harro nago nire jatorriaz eta nire familiaz.

BIZI ALA IRAUN

Dambo, 7 urteko neska bat da eta ezin du lorik egin. Lo hartzeko bere aitak ipuin bat kontztzen dio, egunero bezala. Gaurko ipuina emigratzaile baten istorioa da baina Dambok ez dakiena da bere aitaren istorioa dela.


Bidai gordin, gogorra eta oso zaila da baina, batez ere, oso luzea. Bere aitak, Mamadou Diabyk, inoiz ez du etsipena galtzen eta beti aurrera egiten saiatzen da, ahaztu gabe nondik datorren eta nora iritsi nahi duen. Bidaian zehar gauza asko ere ikasten ditu eta hainbat lagun egiten ditu.

Dambo konturatzen denean bere aitaren istorioa dela eta bere familia han dagoela, bertara bidai bat egin nahi du bere familia eta aitaren jaioterria ezagutzeko.


EGINDAKO IBILBIDEA

1. **Samekouta:** bere jatorria da, hor hasi zuen bere ibilbidea.
2. **Saharako desertua:** oinez zeharkatu zuen, une oso gogorrek izan ziren, beroa eta gosea pasatu eta hildako asko ikusi behar izan zituen.
3. **Aljeria:** lanean egon zen, dirua lortzeko.
4. **Tanger:** Mafia askori dirua eman izan behar zuen itsasoa pateran pasatzeko.
5. **Mediterraneo itsasoa:** bere paterako jendea hiltzen ikusi zuen eta bidaia luzea izan zen.
6. **Tarifa:** Espainiara iritsi zirenean, kartzelan egon zen 40 egunez.
7. **Roquetas de mar:** negutegietan lan egitera joan zen, dirua lortzeko.
8. **Iruñea:** Kalean bizitzen egon zen Felix ezagutu arte.
9. **Oikia:** Fabrika batera lanera etorri zen eta bertan geratu zen bizitzen.

Guztira, 4.547,83 km egin zituen.



BIDAIKO ARGAZKIAK



Bere herriko eskola batean azaltzen da, bidaia hasi baino lehenago.



Pateran berarekin joan behar zirenekin ateratako azken argazkia.



Tarifako kartzelan 40 egunez egon zenekoa.

EIHARA IRAZUSTA



Eihara aktore gebararra da, Arabako herri txiki batekoa. Orain Donostiako unibertsitate publikoan irakaskuntza ikasketak ikasten dabil, etorkizunean hurrekin lanean aritzeko. Aktore bezala ez da inoiz lanean ibili, Miñan ari da izaten bere lehen antzezlan, Sambourekin batera. Oso eskertuta dago Artedramak emandako aukera zoragarri honengatik. Bere ustez proiektu honen helburua liburuak transmititzen duen ideia hori antzerkira eta gorpuztuta jendeari erakustea da. Gogo askorekin ari da bizitzen esperientzia hau eta beretzako sorkuntza ikasketa bat izaten ari da.

Guk berarekin hitz egiteko eta bere iritzia jakiteko aukera izan dugu, asko ikasi dugu berekin egon garen tartean eta oso eskertuta gaude.



[ELKARRIZKETA OSOA](#)

HAUSNARKETA

Proiektu honetan parte hartzea benetan esperientzia aberasgarria izan dela. Oso gustura sentitu gara, eta asko ikasi dugu. Proiektu honek eguneroko bizitzako errealitateak ulertzen laguntzen digu, eta hori garrantzitsua da.

Dambok bere aitaren istorioa kontatu zigunean, gure ikuspuntua aldatu zen. Gu askotan kexatzen gara gure arazo txikiengatik, izan ere, beste batzuek benetan bizitza zailak izaten dituzte. Hala ere, haiek aurrera egiten jarraitzen dute, eta horrek irakasten digu zenbat sufritzen duen jendeak. Horregatik, gure kexak txikiak iruditzen zaizkigu, eta jende horren indarra eta ausardia baloratzekoa da.

Proiektu honek enpatia eta elkartasuna sustatzen laguntzen digu. Ikasi dugunak gizartean aldaketa bat ekar dezake. Desberdintasunak ikusi eta horien aurrean jarrera aktibo bat izatea beharrezkoa da, guztion ongizateari laguntzeko.

Gainera, proiektu honetan parte hartzeak gure artean lotura indartzen lagundu digu, eta elkarlanean aritzea ikasi dugu. Etorkizunean, gure esperientziak partekatuz, gizarteari laguntzeko aukera izango dugu, eta hori garrantzitsua da.



MANDINGERA

Mandingera edo **mandinkera** Mandé taldeko hizkuntza bat da. Mandinga etniak hitz egiten du Malin, Senegalen, Gambian eta Ginea Bissaun. Gambiako hizkuntza nagusia da, Bambararen antzekoa. Guztira 1,2 milioi hiztun ditu.

Mamadouren hizkuntzako, Damboren 10 hitz gustukoenak ikasteko jolas hau prestatu dugu. Animatu zuek ere probatzera!!

1. Anaia= Tata
2. Amama= Mama
3. Mesedez= Muna
4. Barkatu= Yamfa
5. Hortza= Ñinkesoo
6. Egun on= I saama
7. Zazpi= Woeuwula
8. Otsaila= Kebuwaari-karoo
9. Etxea= Luo
10. Laurogeita hamar= Tan konoto

LETRA-ZOPA: [KLIKATU HEMEN](#) jolasteko.

MIGRAZIOA																			
B	F	X	Y	B	N	J	Q	W	F	W	L	P	F						
S	I	S	A	A	M	A	A	M	X	Z	G	V	D						
F	Z	Z	M	E	M	X	Z	U	Z	W	F	G	Z						
N	T	K	F	F	B	J	Y	N	G	A	Q	P	M						
X	U	Z	A	F	G	A	F	A	A	U	C	L	R						
E	J	U	P	A	A	H	W	M	A	M	A	M	W						
W	H	X	P	X	Q	N	C	Y	O	R	K	P	J						
K	E	B	U	W	A	A	R	I	.	K	A	R	O						
P	T	H	I	Q	N	V	X	I	L	U	O	I	C						
V	F	L	Q	N	G	X	T	E	Z	B	O	B	Q						
V	N	N	S	M	V	S	H	X	L	R	U	Z	Z						
Z	S	U	R	W	O	E	U	W	U	L	A	E	R						
P	I	C	T	A	T	A	D	K	O	N	O	T	O						
J	L	Y	Ñ	I	N	K	E	S	O	O	K	O	S						

Las palabras pueden estar ocultas horizontalmente o verticalmente.

Isaama	Kebuwaari-karo
Luo	Mama
Muna	Tata
Woeuwula	Yamfa
tan konoto	Ñinkesoo

BITXIKERIAK

1. LIBURUAREN IZENBURUA: [BIZIRAUN-BERRI TXARRAK](#) abestitik atera dugu gure liburuaren izenburua. Gazteleraz, “vivir o durar” esanahia du. Azalean ateratzen den mutila Sambou da.
2. Gure elkarrizketatuaren anaiak, **Sambou Diabyk**, Ibrahimaren paperean egiten du 'Miñan' antzerki lana. [SAMBOU DIABY-k](#) esteka honetan bere bidaia profesionalari buruz hitz egiten du.
3. IMIGRAZIOA EUSKAL HERRIAN:
 - Historian zehar Euskal Herrian ohikoagoa izan da bertakoen atzerrirako emigrazioa, kanpokoen immigrazioa baino.
 - XIX. mendean, Industria Iraultzak erabat aldatu zuen joera hori, eta Euskal Herria espainiar estatutik etorritako milaka etorkinen jomuga bihurtu zen.
 - Hasieran, etorkinen ailegatzea motela izan zen, eta bereziki Araban eta Nafarroan bildu ziren. Ondoren, immigrazioa Hego Euskal Herri osora zabaldu zen.
- 4.

